



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Zorionekoak behartsuok, zuek baituzue Jainkoa errege”

2022ko otsailaren 13a  
Urteko 6. igandea (C)

### Lukas 6, 17. 20-26.

Jesus, ikasleekin menditik jaitsi ondoren, zelaigune batean gelditu zen. Ikasleatariko asko harekin ziren; bai eta herriko jende-talde handia ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiro eta Sidongo itsasaldetik etorria.

Jesusek, ikasleei begira, honela esan zuen: “Zorionekoak behartsuok, zuek baituzue Jainkoa errege. Zorionekoak orain gose zaretenok, aseko baitzaituzte Jainkoak. **Zorionekoak orain negar egiten duzenok, barre egingo baituzue**”.

“Zorionekoak zuek, Gizonaren Semea dela eta, jendeak gorrotatu, kanpora bota eta madarikatuko zaituztenean eta izen txarra emango dizuetenean. Alai zaitezte egun horretan eta egin pozez jauzi, handia izango baita zuen saria zeruan; gauza bera egin zieten profetei jende horren gurasoek”.

“Baina ai zuek, aberatsok, bai baituzue zeuen poza! Ai zuek, orain aseak zaudetenok, gose izango baitzarete! Ai zuek, orain barre egiten duzenok, aiene eta negar egingo baituzue! Ai zuek, mundu guztiak zuetaz ongi hitz egingo duenean, gauza bera egin baitzieten sasiprofetei jende horren gurasoek!”.

“Zorionekoak orain negar egiten duzenok, barre egingo baituzue”

## POBREAK ZINEZ AINTZAT HARTU

*Jose Antonio Pagola*

«Zoriontasunak» Mateoren ebanjelioan datozenez entzuten ohiturik, gogor gertatzen zaigu lur aberats hauetako jendeari Lukasek dakarkigun testua irakurtzea. Itxura duenez, ebanjelari hau eta honen irakurleatarik asko klase erosokoak ziren. Halaz guztiz, Jesusen mezua ezitu ordez, era zirikatzaileagoan aurkeztu du testua Lukasek.

Pobreen aldeko «zoriontasunen» segidan, aberatsei zuzenduriko «zori-gaiztasunak» gogoratu ditu Lukasek: **«Zorionekoak pobreak... orain goseak zaretenak... orain negar degizutenak»**. Aitzitik, **«ai zuek, aberatsak... orain aseak zaretenak... orain barre degizutenak»**. Ebanjelioa ezin entzun du jende guztiak modu berean. Pobreentzat esperantzara gonbidatzen dituen Berri On dena, aberatsentzat konbertsiora dei egiten dien mehatxu da. Nola entzun mezu hau gure kristau-elkartetan?

Beste ezer baino lehen, munduan den errealitaterik odoltsuena dakarkigu Jesusek begi aurrera, Jainkoaren bihotza gehiena hunkitzen duena, bere begi aurrean bizienik duena. Geure lur aberats hauetan ezikusiarrena egin nahi diogun errealitatea da, behin eta berriz isilarazi nahi duguna, zuzengabekeriari ankerrena eta bidegabeena mila erataraz estali nahiz, haren errudun hein handian geu garelarik.

Autoengainu hori elikatzen jarraitu behar ote dugu, ala pobreen egoerara begiak ireki? Nahi ote dugu zinez? Hartuko ote dugu zinez aintzat, behingoz, goseak eta duintasuna ukaturik bizi den gehiengo handi hori, ongizaterako gure bidean nor ez den hori?

Kristauok ez gara konturatu oraino kristautasunaren historian pobreek izan dezaketen garrantziaz. Beste inork baino argi handiagoa eskaintzen digute horiek geure burua geure egian ikusi ahal izateko; gure kontzientzia astindu eta konbertsiorako gonbita zuzentzen digute etenik gabe. Bihar eguneko Eliza modu ebanjelikoagoan eratzen lagundu diezagukete. Soiltasuna, solidaritatea eta eskuzabaltasuna bizitzeko gizatarrago eta gaiago bihur gaitzakete.

Aberatsen eta pobreen arteko leizea handituz doa, geldiezineko abiadan. Etorkizunean, gero eta ezinezkoagoa izango da munduaren aurrean Jesusen Eliza bezala agertzea, Lurreko ahulenei eta babesgabeenei ezikusiarrena egiten jarraitzen badugu. Edota pobreak aintzat hartu edota Ebanjelioaz ahaztu. Lur aberats hauetan gero eta nekezago entzun ahal izango dugu Jesusen oharpen hau: **«Ezin izan zarete Jainkoaren eta Diruaren zerbitzari»**. Jasanezineko bihurtuko zaigu.